

## XIV. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

### Otoitza

Jainko Jauna, zure Semea beheratuz,  
jaso egin duzu eroria zegoen mundua;  
eman zeure fededunei egiazko poza,  
eta egizu, bekatuaren uzterpetik askatu dituzunek  
betiko zoriona izan dezatela.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ez 2, 2-5

*Herri bihurria dira,  
baina jakingo dute badela profeta bat haien artean.*

Ezekiel Profetaren liburutik

Egun haietan, espiritua barrura sartu zitzaidan, eta zutik jarri ninduen; eta norbait niri mintzatzen entzun nuen.

Honela esan zidan: «Adanen seme! Israelgo seme-alabetara bidaltzen zaitut, aurka altxa zaidan herri bihurri horrengana. Hauek eta hauen arbasoak, nire aurka ari izan dira gaurdaino. Hauen seme-alabak ere bekoki zakarrekoak eta bihotz gogorrekoak dira; horiengana bidaltzen zaitut, eta honela esango diezu: "Hau dio Jaunak". Entzuten badizue eta ez badizue —herri bihurria baitira—, jakingo dute badela profeta bat haien artean».

ERANTZUN SALMOA: Sal 122, 1. 2. 3-4

R/. **Gure begiak Jaunarengana daude,  
gutaz erruki dadin arte.**

Zugana jasotzen ditut begiok, Zugana,  
zeruetan zauden Horrengana. R/.

Morroien begiak begira baitaude nagusien eskuei,  
neskamearen begiak etxeoandarearen eskuei:  
horrela gure begiak Jaunarengana,  
gure Jainkoarengana, daude,  
gutaz erruki dadin arte. R/.

Erruki zaitetz, Jauna, gutaz erruki zaitetz,  
esker txarrez ase eta beteak baikaude.  
Ongi aserik dago, bai, gure barrena  
ustetsuen irriz, harroen esker txarrez. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Kor 12, 7-10

*Pozik harrotuko naiz nire argaltasunetaz,  
Kristoren in*

## San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Harro ez nadin, hementxe daukat nik ezten bat neure haragian, Satanasen aingerua, makilka narabilena, harro ez nadin. Eta hiru aldiz eskatu diot Jaunari, uxa dezala niregandik. Baina Berak honela esan dit: «Nahikoa duzu nire grazia; makalaldian iristen da bere betera indarra».

Pozik harrotuko naiz, beraz, nire argaltasunetaz, Kristoren indarra bizi dadin niregan. Horregatik pozik nabil Kristorengatik ahulerietan, laidoetan, gabezietan, erasoaldietan eta estualdieten. Ahul naizenean bainaiz indartsu.

EBANJELIOA: Mk 6, 1-6

**Aleluia:** Ik. Lk 4, 18

R/. Aleluia.

V/. Jaunaren Espiritua niregan dago,  
behartsuei berri ona ematera bidali nau. R/.

*Bere herrian bakarrik gutxiesten dute profeta.*

## Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, bere ikasleak lagun zituela. Eta larunbata heldurik, erakusten hasi zen sinagogan, eta gehienek Hari entzutean, harriturik, honela zioten: «Nondik du Honek hori guztia? Zer da Honi eman zaion jakinduria hau, eta bere eskuz egiten dituen mirariak? Hau ez al da arotza, Mariaren semea, eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Bere arrebak ere ez al daude hemen, gure artean?» Eta ezin sinetsi zuten Harengan.

Jesusek, berriz, honela esan zien: «Bere herrian, bere senitartean eta bere etxean bakarrik gutxiesten dute profeta».

Eta ezin izan zuen han miraririk egin; bakar-bakarrik, eskuak gainean ezarrita, gaixo gutxi batzuk sendatu zituen. Harriturik zegoen Bera, haien sinesgogorkeriagatik. Eta auzorik auzo zebilen, han inguruan, erakusten.

### **Oparigaien gainekoa**

Eskaintzen dizugun opari honek  
garbi gaitzala, Jauna,  
eta eraman gaitzala  
egunetik egunera zerutar antzerago bizitzera.  
Jesu Kristo.

### **Jaunartze ondorengoa**

Hain dohain handiak harturik, Jauna, eskatzen dizugu  
salbamen fruituak irits ditzagula  
eta Zu goersten bizi gaitzela.  
Jesu Kristo.